

Itsas zabala



Baziren behin Mumo deitzen zen marrazo bat eta Vingo deitzen zen arrain bat.

Mumo marrazoa grisa zen eta Vingo arraina laranja zen eta biek 4 urte zituzten.

Arrainen itsasoan poz-pozik zeuden oso lagunak zirelako eta beti jolasten zeuden.

Egun batean joan ziren oso urrun eta galdu ziren. Gero orka handi bat etorri zen eta Vingo jan zuen eta Mumok alde egin zuen eta orka segituan atzetik joan zen baina Mumo ezkutatu zen.

Mumok bere lagunei abisatu egin zien eta denak orka aurkitzen hasi ziren. Gero erreskatatu zuten Vingo, orkari kili-kili egiten atera zuten eta denok festa bat ospatu zuten.



.....
"Itsas zabala"
Ian Rojo Ortiz de Zárate
7 urte - Sondika
2011 - A kategoria
1. saria
.....